


ADEAR (Artritis Erreumatoidearen eta Espondilitis Ankilosatzailearen Arabako Elkarte)



Vicente Abreu Margolariaren kalea, 7 – etxabea, 2. bulegoa

945 242 116 / 645 736 612

adear@euskalnet.net

www.adear.es

ADEAR Artritis Erreumatoide gaixotasunak jotakoak elkartzeko sortu zen, eta 2007tik Espondilitis Ankilosatzaile gaixotasunari ere ireki zizkion ateak. Patologia horiek dituzten pertsonen eta haien senideen beharrezanean erantzuna ematen saiatzen da Elkarte, informazioa eta aholkularitza jasotzeko gune bat izan dezaten.

Artritis Erreumatoidea gaixotasun kronikoa da (iraunkorra denboran), sistemikoa (organismo osoari eragin diezaioke), hantura eragiten du, jatorri ezezagunekoa eta giltzadurari eragiteko duen era du ezaugarri. Eskuetako eta eskumuturretako artikulazioei eragin ohi die. **Espondilitis Ankilosatzailea** prozesu erreumatiko inflamatorioa da, kronikoa, eta bizkarrezurreko giltzadurei eta bizkarrezurra pelbisari (sakroiliakoak) lotzen dituztenei eragiten die. Gaixoen herenak baino zertxobait gehiagok beste artikulazio batzuen hantura jasango du (oinaren, orkatilaren, belauen, aldaken eta abarren artikulazio txikiak), ia beti beheko gorputz-adarretan.

Gaixoei, egunerokotasunean, gaixotasunari hobeto aurre egiten eta bizi-kalitate eta ongizate handiagoa lortzen laguntzeko jarduerak eskaintzen dituzte. Laguntza profesionala dute:

psikologoa, gizarte-langilea, fisioterapeutak, Gorputz Hezkuntzako monitorea, erreumatologoak, besteak beste. Gainera, gizartea gaixotasun horien existentziari eta horien ondorioei buruz sentsibilizatzen eta kontzientziazten saiatzen dira, dibulgazio-kanpainen eta bestelako ekitaldien bidez: jardunaldiak, hitzaldiak, kongresuak...

Fundación Vital Fundazioaren lankidetzak

Entitatearen eta ADEAREN arteko lankidetzak puntualen bat izan ondoren, hala nola 2004an Artritis Erreumatoideren Estatuko I. Kongresua egiten laguntzeko egindakoa, 2017tik aurrera, elkarteak Vital Fundazioaren laguntza-deialdietara aurkeztutako proposamenak aintzat hartu ziren.